

ZALDIBAR. Herriko trikiti eskolak 30 lagun inguru hartzen ditu



Durangaldeko trikiti eskola guztiei egin deusie ekimenean parte hartzeko gonbitea.

Eskualdeko trikitilariak alkartuko dira domekan

Durangaldeko I. Trikitilari Eguna eratu dau Koral Alkarteak

Aitziber Basauri |

Zaldibar izango dau agertoki Durangaldeko I. Trikitilari Egunak. Datorren domekarako, irailak 30, jarri dabe hitzordua, eta, guztira, 150 bat trikitilari batuko diralakoan dagoz.

Zaldibarko Koral Alkartearen ekimena izan da, eskualdean lehenengoz Durangaldeko hainbat trikitilari alkartzea: «Orain arte, trikitilari jaialdiak egin, egin izan dira; herri bakotxean, —Durangon, Abadiñon, eta beste herri batzuetan be bai— bertoko jaiak dirala-eta, edo bestelako ekimenen barruan— antolatu dira trikitilari saioak. Halandabe, Durangalde osoko trikitilariak batzeko asmotan, ez da halako ekimenik aurrera eroan. Ez da inoiz Trikitilari Eguna eratu», azaldu dau Jabier Zuluagak, Koral Alkarteko lehendakariak. «Orain arteko trikiti jaialdietan 50-80 pertsona batu izan dira, Zaldibarren edo Berriren, estarako. Orain guztiok batzeko aukerea izango dogu».

Durangaldeko trikiti eskola guztiak alkartzeko aukerea

Durangaldeko trikiti eskola guztiak alkartzeko aukerea eskaini guran eratu dabe trikitilari eguna: «Trikiti eskola asko dagoz eskualdean, eta urtean behin

bada be, danok alkartzeko aukerea euki gura dogu. Horixe da gure helburua. Txistulariek be halan egiten dabe, orduan... zergaitik ez trikitilariak?», dino Zuluagak.

Halako ekimenekin trikitia bera be bultzatzeko modua izan leitekela uste dau Koral Alkarteko lehendakariak: «Trikitia indartzea lortu geinke. Eta geure kulturea bultzatzeko modua be bada, ganera».

Durangaldean jarduten daben trikiti eskola guztiei egin deusie gonbitea Koral Alkarteko kideek; eta danak be gertu azaldu dira Durangaldeko I. Trikitilari Egunean parte hartzeko, azaldu dabenaren arabera. Halan, besteren artean, Durango, Elorrio, Mallabia, Iurreta, Abadiño edo Berrizko trikiti eskoletako ordezkariak batuko dira, datorren domekan, Zaldibarren. Orain urte bi eskas sortutako bertoko trikiti eskolea

HELBURUA

Durangaldeko trikiti eskoleak alkartzeko aukerea eskaini gura dabe trikitilari eguna eratuta; «urtean behin bada be»

EGITARAUA

IRAILAK 30, DOMEKEA

11:30: Durangalde osotik hurreratutako trikitilari guztiak alkartuko dira, Zaldibarren. Ostein, barriz, kalejirea egingo dabe herriko kaleetan.

13:30: Udaletxe aurreko plazan kontzertua eskainiko dabe alkartutako trikitilari guztiek batera.

barne. « Alkartean 100 kideet gora izango gara, eta hainbat soinu tresna jotzen ikasteko aukerea dago: gitarrea, panderetea... Orain urte bi eskas hainbat guraso etorri ziran trikiti eskola eratzerik baegoan galdezka. Orduan hasi ginan, bospasei ikaslegaz; orain, 30 bat ikasle dagoz», gogoratu dau Zuluagak.

Trikitilari Egunagaz jarraitzeko asmo tinkoa

Domekan izango dan Durangaldeko I. Trikitilari Egunari jarraipena emoteko asmo tinkoa dauka Koral Alkarteak: «Gure itxaropena jarraitzea da. Era berean, urtero herriz aldatzea gura geunke, eta, txandaka, eskualdeko herri guztietatik igarrotea. Halandabe, urteren baten ezinezkoa bada, Zaldibarren egingo dogu», azaldu dau Zuluagak.

ZORNOTZA. 'Hor dago koxka' taularatuko da

Ttanttakak zabalduko dauz Aretoko zuzeneko saioak

A.B. |

Ttanttaka antzerki taldeak *Hor dago Koxka* antzezlan taularatuko dau Zornotza Aretoa, bihar. Antzerki saio horregaz hasiko dauz aretoak, hurrengo hiruhilabetetako gertautako zuzeneko emonaldiak.

Maitasun hartu-emonen eguneroko gorabeheren unibertsoa bisitarazoten jako ikusleari, *Hor dago koxka* obregaz. Modu guztiz gordin eta ironikoan, eta etenbako irribarrea eraginda. Ttanttakaren azken lana, 21:00etan ikusi hala izango dabe Zornotza Aretora doazanak.

Quim Monzok landutako testua eta hainbat kantu eskutik helduta doaz Ttanttakaren obra horretan: «Uztaririk, alkarturik eta bat eginik, benetako bikoteak

askotan ez bezala». Halan, Ramon Agirrek, Ane Gabarainek, Elena Iruretak eta Jose Ramon Soroizek aktore lanetan diharduen antzezlanean, hainbat kantu entzuteko aukerea izango dabe ikusleek: *Hortxe dago koxka; Zuri ikasia; Ez zintuzket maite nahi; Hik zer dakik?; Maita nazazu zuk ere; Erotzeraino maite; Zer den Maitasuna!; Maitia, non zira?; Hiregaitik gaizto; Ene hasarrea; Zurekin urruntasunean eta Ume zoro alena.*

Fernando Bernues eta Mireia Gabilondok zuzendutako antzeleranean, zuzeneko musikeaz, Angel Unzu eta Pablo Moreno arduratu dira.

Hainbat alditan aurkeztu izan dau Ttanttaka Teatrok, antzezan hori; Durangaldean bertan be bai. Biher, Zornotzan ikusteko aukerea egongo da.

DURANGO. Museoan izango da, 19:30ean

Sexu delituen ganeko berbaldia eratu dabe gaurko

A.B. |

Durangoko Arte eta Historia Museoan berbaldi berezia izango da, gaur, arrastiko 19:30etan. Izan be, *El delito sexual en el Duranguesado. Siglos XVI-XIX* izenburupean jardungo dau Patricio Aldama Ganboak, Etxezarreta Jauregian.

Gaur egun, doktorego tesia gertatzen dihardu Aldama Ganboak; *Delitu sexuala Bizkaian, XVI. mendetik hona*

da lanaren ardatz nagusia, Arte eta Historia Museoko arduradunek jakinarazo dabenez.

Historian lizentziadun da Patricio Aldama Ganboak; era berean, hainbat txosten eta artikulu idazteaz aparte, *Historia de Mendaro (Bilbao 1993)* liburuaren egileetarik bat be izan da. Gaur, Arte eta Historia Museoan, eskualdea ardatz izanda, sexu delituen ganekoberbaldia eskaintzeaz arduratuko da.

AGENDA

ELORRIO

Antzerkia: Julio Perugorria

Producciones-en eskutik *Los días felices* antzezlan taularatuko dabe, bihar, Arriola Kultur Aretoa, 22:30ean. Euskal Herriko estreinaldia izango da, ganera, Elorrioko saioa.

ERMUA

Antzerkia: *Rock & Clown* antzezlan taularatuko dau Yllana taldeak, bihar, Ermuko zineman. Gaueko 22:15etan izango da saioa.

DURANGO

Erakusketa: *Solsticio solar*, Fernando Beorlegi artista nafarraren lana ikusi leiteke Arte eta Historia Museoan, hilaren 30era artean. Astelehenetik barikura

10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara. Zapatu eta domeketan, barriz, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara.

ARTEA

Erakusketa: *Gorbeia, 100 urteko gurutzeta* erakusketa dago zabalik Euskal Nazionalismoaren Museoan. Manu Egileor Aretoa hain zuzen be. Zemendiaren 4ra artean ikusi leiteke. Martitzenetik zaptura 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara ikusi leiteke. Domeka eta jai egunetan, barriz, 11:00etatik 14:00etara.

Erakusketa: *Gure aurreko andrak*, Eulalia Abaituak 1873tik 1936ra bitartean egindako argazki bilduma ikusi leiteke, udaletxean; hilaren 29ra artean. Goizez bakarrik izango da zabalik argazki erakusketa.